BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, HONAKO HAU KONTRATATZEKO: BERGARAN, BOST INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK HORNITU, INSTALATU ETA ABIAN JARTZEA	***PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO, INSTALACIÓN Y PUESTA EN FUNCIONAMIENTO DE CINCO INSTALACIONES FOTOVOLTAICAS EN BERGARA***

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak finantzatua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU) *ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIEN BIDEZKO AUTOKONTSUMOARI ETA BILTEGIRATZEARI ETA BIZITEGI-SEKTOREAN SISTEMA TERMIKO BERRIZTAGARRIAK EZARTZEARI LOTUTAKO PIZGARRI-PROGRAMA*ren barruan

Financiado por el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (Financiado por la Unión Europea – Next Generation EU), dentro del "PROGRAMA DE INCENTIVOS LIGADOS AL AUTOCONSUMO Y AL ALMACENAMIENTO, CON FUENTES DE ENERGÍA RENOVABLE, ASÍ COMO A LA IMPLANTACIÓN DE SISTEMAS TÉRMICOS RENOVABLES EN EL SECTOR RESIDENCIAL".

1. KONTRATUAREN XEDEA	***1. OBJETO DEL CONTRATO***
Bergarako Udala hainbat ekintza egiten ari da bere instalazioen energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko, eta, osagarri gisa, panel fotovoltaikoen bidez energia ekoizteko bost instalaziori ekin nahi dio, erakundearen eraikinen hornidura elektrikoaren zati bat hornitzeko.	*El Ayuntamiento de Bergara está realizando diversas acciones para mejorar la eficiencia energética de sus instalaciones y para disminuir el consumo energético y, de forma complementaria, pretende abordar cinco instalaciones de producción de energía mediante paneles fotovoltaicos que abastezcan parte del suministro eléctrico de los edificios de la institución.*
Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean jasotakoaren arabera, euskal administrazio publikoak behartuta daude jasangarritasun energetikorako ekintzak integratzera beren politika publikoetan. Ekintza horien helburua izango da urteko energia-kontsumoa murriztea eta energia berriztagarrien instalazioak ezartzea.	*Además, según se recoge en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca, las administraciones públicas vascas están obligadas a integrar acciones para la sostenibilidad energética en sus políticas públicas. El objetivo de estas acciones será reducir el consumo anual energético e impulsar la implantación de instalaciones de energías renovables.*
Plegu honen xedea honako hau da: Bergarako estalki ezberdin batzuetan hainbat udal-eraikinen autokontsumo kolektiborako –soberakinen salmentarekin ere– bost eguzki-instalazio fotovoltaikoak ezartzeko beharrezkoak diren jarduketen irizpide eta	*El objeto de este pliego es definir los criterios y prescripciones técnicas de las actuaciones necesarias para implantar las cinco instalaciones fotovoltaicas para autoconsumo colectivo con venta de excedentes de varios edificios municipales en diferentes cubiertas de Bergara a*

preskripzio teknikoak zehaztea; eta aurkeztutako eskaintzak irizpide eta preskripzio tekniko horietara egokitu beharko dira.	*las que se deberán ajustar las ofertas presentadas.*
Instalazioaren zatiek bat etorri beharko dute aplikatu beharreko araudiarekin, eta osagai guztiak berriak eta originalak izan beharko dira, eta erakunde eskudunek homologatu izanak.	*Las distintas partes de la instalación deberán ser conformes a la normativa que les sea de aplicación, y todos sus componentes deberán ser nuevos y originales, y haber sido homologados por los organismos competentes.*
Kontratuaren xedea hiru lotetan banatuko da:	*El objeto del contrato se dividirá en tres lotes:*
- 1. lotea: Martinez Iralako instalazioa	- *Lote 1: Instalación de Martínez Irala*
- 2. lotea: Labegaraietako eta Osintxuko (frontoia) instalazioa	- *Lote 2: Instalación de Labegaraieta y Osintxu (frontón)*
- 3. lotea: Oxirondoko eta Angiozarko (frontoia) instalazioa.	- *Lote 3: Instalación de Oxirondo y Angiozar (frontón).*
Kontratu hau Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak finantzatu du, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU), ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIEN BIDEZKO AUTOKONTSUMOARI ETA BILTEGIRATZEARI ETA BIZITEGI-SEKTOREAN SISTEMA TERMIKO BERRIZTAGARRIAK EZARTZEARI LOTUTAKO PIZGARRI-PROGRAMAren barruan.	*El presente contrato ha sido financiado por el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (Financiado por la Unión Europea – Next Generation EU), dentro del "PROGRAMA DE INCENTIVOS LIGADOS AL AUTOCONSUMO Y AL ALMACENAMIENTO, CON FUENTES DE ENERGÍA RENOVABLE, ASÍ COMO A LA IMPLANTACIÓN DE SISTEMAS TÉRMICOS RENOVABLES EN EL SECTOR RESIDENCIAL".*
1.1 LANAK EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ARAUDIAK	*1.1 NORMATIVAS A TENER EN CUENTA PARA LA REALIZACIÓN*
Autokontsumo kolektiborako –soberakinen salmentarekin ere– instalazio fotovoltaikoak abian jartzeko, hona hemen bete beharreko araudiak:	*Las normativas a cumplir para la puesta en marcha de las instalaciones fotovoltaicas de autoconsumo colectivo con excedentes es la siguiente:*
• 1699/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, energia elektrikoa sortzeko potentzia txikiko instalazioak sarera nola konektatu arautzen duena.	• *Real Decreto 1699/2011, de 18 de noviembre, por el que se regula la conexión a red de instalaciones de producción de energía eléctrica de pequeña potencia.*
• 244/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena.	• *Real Decreto 244/2019, de 5 de abril por el que se regulan las condiciones administrativas, técnicas y económicas del autoconsumo de energía eléctrica.*
• 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena.	• *Real Decreto 842/2002, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento electrotécnico para baja tensión.*

• Banaketa elektrikoa egiten duen konpainiak –kasu honetan I-DE– ezarritako baldintza teknikoak.	• *Las condiciones técnicas establecidas por la compañía de distribución eléctrica, en este caso I-DE.*
2. <u>EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIBAPENA</u>	***2. <u>DESCRIPCIÓN DEL TRABAJO A REALIZAR</u>***
Plegu honen xede diren lanak, besteak beste, honako hauek izango dira:	*Los trabajos objeto de este pliego serán, entre otros, los siguientes:*
• Autokontsumo kolektiborako –soberakinen salmentarekin ere– eguzki-instalazio fotovoltaikoa hornitzea eta muntatzea.	• *Suministro y montaje de la instalación solar fotovoltaica para autoconsumo colectivo con venta de excedentes.*
• Sortutako energia neurtzeko eta monitorizatzeko sistemak instalatzea.	• *Instalación de sistemas de medición y monitorización de energía generada.*
• Instalazioa abian jartzea eta instalazioaren ziurtagiriak.	• *Puesta en marcha y certificados de la instalación.*
• Kudeaketa-lanak egitea instalazio fotovoltaikoa legeztatzeko, autokontsumorako –soberakinen salmentarekin ere– instalazio kolektibo gisa zerbitzuan jarri ahal izateko; eta kudeaketa-lanak egitea enpresa banatzailearekin ere, beharrezkoa balitz. Honen barne sartzen da Kontrol Erakunde Baimenduak egin beharreko Hasierako Ikuskapena.	• *Gestiones para la legalización de la instalación fotovoltaica para su puesta en servicio como instalación de autoconsumo colectivo con venta de excedentes, así como con la empresa distribuidora, si fuera necesario. Se incluye la contratación de la Inspección inicial por Organismo de Control Autorizado.*
• Instalazioa erabat legeztatzeko behar diren baimenak, lizentziak eta zergak, bai lanak egin aurretikoak, bai ondorengoak.	• *Autorizaciones, licencias e impuestos necesarios para la completa legalización de la instalación, con anterioridad y posterioridad a la ejecución de los trabajos.*
• Horniketaren eta instalazioaren dokumentazioa entregatzea, baita amaierako ziurtagiriak eta dokumentazio teknikoa ematea ere, "as-built" planoekin batera (dwg formatuan).	• *Entrega de documentación y emisión de certificados y documentación técnica final del suministro e instalación, con planos as-built, en dwg.*
• Instalazioak legeztatzeko aurretiko jakinarazpena egitea, dagokion dokumentazio teknikoarekin batera.	• *Comunicación previa de legalización de las instalaciones, junto con la documentación técnica correspondiente.*
Instalazio guztiak egiten ari diren bitartean, Laneko Arriskuen Prebentzioaren eta Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean	*El adjudicatario será responsable de cumplir con toda la legislación vigente en materia de Prevención de Riesgos Laborales y de Seguridad y*

dagoen legeria guztia betetzearen erantzukizuna adjudikazio-hartzailearena izango da. Era berean, derrigor izan beharko du baimendutako instalatzaile elektrikoaren sailkapena, behe-tentsioa sortzen duten instalazioetako espezialistaren kategorian.	*Salud durante la ejecución de todas las instalaciones. Asimismo, será obligatorio disponer de la clasificación de instalador eléctrico autorizado en la categoría de especialista en instalaciones generadoras de baja tensión.*
Edozein galdera, argibide edo zalantza bulego ordutegian azaldu ahal izango da –8:00etatik 15:00etara– udaleko energia teknikariaren aurrean (Telefonoa: 943-779138).	*Cualquier cuestión, aclaración o duda podrá ser sustanciada en horario de oficina -de 8,00 a 15,00 horas- ante el técnico municipal de energía (Teléfono 943-779138).*
3. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK	***3. ESPECIFICACIONES TÉCNICAS***
3.1 INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA ETA KOKAPENA	*3.1 DESCRIPCIÓN Y UBICACIÓN DE LAS INSTALACIONES*
Eguzki-plaka fotovoltaikoak instalatuko diren eraikinak behe-tentsioan elikatzen dira, eta instalazioak behe-tentsioko banaketa-sare horretara ere konektatuko dira, memoria teknikoan definitutako lotura-instalazio berrien bidez. Instalazioen neurriak egokitu egin dira teilatuen azalera gehiena aprobetxatzeko eta, horrela, instalazioaren autokontsumoan parte hartuko duten udal-eraikinek urteko sorkuntzaren % 90 inguruko aprobetxamendua izan dezaten; beraz, ez da aurreikusi sortutako energia biltegiratzeko beharrik (ikus planoak -2. eranskina-).	*Los edificios en los que se van a instalar las placas solares fotovoltaicas se alimentan en baja tensión y las instalaciones se conectarán también a dicha red de distribución de Baja Tensión a través de las nuevas instalaciones de enlace definidas en la memoria técnica. Las instalaciones se han dimensionado para aprovechar la máxima superficie de los tejados y para que haya un aprovechamiento de aproximadamente el 90% de la generación anual por parte de los edificios municipales que participarán del autoconsumo de la instalación; por tanto, no se ha previsto la necesidad de almacenamiento de la energía generada (ver planos -anexo 2-).*
3.1.1 Martinez Iralako instalazioa	***3.1.1 Instalación de Martínez de Irala***
Aztertu beharreko hurrengo instalazioa Martinez de Irala ikastetxeko planta fotovoltaiko bat izango da; hona hemen, Katastroko datuak:	*La siguiente instalación a estudiar será una planta fotovoltaica del edificio Martínez de Irala Ikastetxea con los siguientes datos catastrales:*
Udalerria: Bergara **Eremua:** 413 **Katastroko erref.** 4774250 **Kalea:** Boni Laskurain **Ataria:** 013	***Municipio:*** *Bergara* ***Zona:*** *413* ***Ref. Catastral*** *4774250* ***Calle:*** *Boni Lakurain* ***Portal:*** *013*
Instalazioak 220kW-eko potentzia nominala izango du inbertsoreetan, eta potentzia gorena –baldintza estandarretan– 216.480 Wp-koa izango da (1000 W/m^2, 25ºC zelularen tenperatura, eta 1,5 IAM). Instalazioa jarriko da	*La instalación tendrá 220kW de potencia nominal en inversores, siendo su potencia pico, en condiciones estándares (1000 W/m2, 25ºC temperatura de célula y 1,5 IAM) de 216.480 Wp. Se instalará sobre la cubierta del edificio Martínez*

Martinez de Irala ikastetxeko eraikinaren estalkiaren gainean, Bergarako udalerrian (Gipuzkoa).	*de Irala Ikastetxea, situada en el término municipal de Bergara, Gipuzkoa.*
Estalkia orientatuta eta inklinatuta dagoenez, erabaki da moduluak estalkien gainean planokide-posizioan jartzea erabaki da.	*Dada la orientación e inclinación de la cubierta, se ha decidido colocar los módulos en posición coplanar sobre las cubiertas.*
Memoria teknikoak ekipo hauek instalatzea aurreikusten du:	*La memoria técnica prevé la instalación de los siguientes equipos:*
• 492 panel, 440 Wp-ko silizio monokristalinozkoak edo instalazioak puntako potentziara iristeko behar dituen panel-kopurua eta potentzia.	• *492 paneles de silicio monocristalino, de 440 Wp cada uno, o el número y la potencia de paneles necesarias para llegar a la potencia pico de la instalación.*
• 2 inbertsore trifasiko, 100 kW-ko potentzia nominala dutenak.	• *2 inversores trifásico de 110 kW de potencia nominal.*
• Sortutako eta kontsumitutako energia monitorizatzeko sistema.	• *Sistema de monitorización de energía generada y consumida.*
• Behe-tentsioko banaketa-sarera konektatzeko babesak, kableak eta lotura-instalazioak.	• *Protecciones, cableado e instalaciones de enlace para la conexión a la red de distribución de baja tensión.*
• Panelak ikastetxeko estalkien gainean muntatuko dira, egitura autosostengatzaile planokideen gainean, eta horien inklinazioa instalazioak errendimendu optimorako behar duen bestekoa izango da.	• *Los paneles irán montados sobre estructuras autoportantes coplanarias sobre las cubiertas de la escuela, con una inclinación necesaria para el rendimiento óptimo de la instalación.*
3.1.2 Labegaraietako instalazioa	***3.1.2 Instalación de Labegaraieta***
Instalazioa Labegaraietako frontoiaren estalkiaren gainean jarriko da, hego-ekialdera begira. Eraikinaren katastro-datuak honako hauek dira:	*La instalación se dispondrá sobre la cubierta del frontón de Labegaraieta orientada hacia el sudeste. Los datos catastrales del edificio son los siguientes:*
Udalerria: Bergara **Eremua:** 332 **Katastroko erref.** 4772024 **Kalea:** Ibarra Kalea **Ataria:** 005A	***Municipio:*** *Bergara* ***Zona:*** *332* ***Ref. Catastral*** *4772024* ***Calle:*** *Ibarra Kalea* ***Portal:*** *005A*
Aztergai den instalazioa planta fotovolkaiko bat da, 110kW-eko potentzia nominala duena	*La instalación objeto de estudio es una planta fotovoltaica, de 110kW de potencia nominal en*

inbertsorean, eta horren puntako potentzia 99.880 Wp-koa da baldintza estandarretan (1000 W/m^2, 25ºC zelularen tenperatura eta 1,5 IAM). Labegaraietako kiroldegiko estalkian jarriko da, Bergarako udalerrian (Gipuzkoa). Estalkiak dituen orientazioa eta inklinazioa ikusita, erabaki da moduluak estalkiaren gainean planokide-posizioan jartzea.	*inversor, siendo su potencia pico, en condiciones estándares (1000 W/m2, 25ºC temperatura de célula y 1,5 IAM) de 99.880 Wp. Se instalará sobre la cubierta de Labegaraietako Polikiroldegia, situada en el término municipal de Bergara, Gipuzkoa. Dada la orientación e inclinación de la cubierta, se ha decidido colocar los módulos en posición coplanar sobre la cubierta.*
Memoria teknikoak ekipo hauek instalatzea aurreikusten du:	*La memoria técnica prevé la instalación de los siguientes equipos:*
• 227 panel, 440 Wp-ko silizio monokristalinozkoak edo instalazioak puntako potentziara iristeko behar dituen panel-kopurua eta potentzia.	• *227 paneles de silicio monocristalino, de 440 Wp cada uno, o el número y la potencia de paneles necesarias para llegar a la potencia pico de la instalación.*
• Inbertsore trifasiko bat, 110 kW-ko potentzia nominala duena.	• *1 inversor trifásico de 110 kW de potencia nominal.*
• Sortutako eta kontsumitutako energia monitorizatzeko sistema.	• *Sistema de monitorización de energía generada y consumida.*
• Behe-tentsioko banaketa-sarera konektatzeko babesak, kableak eta lotura-instalazioak.	• *Protecciones, cableado e instalaciones de enlace para la conexión a la red de distribución de baja tensión.*
• Panelak frontoiko estalkien gainean muntatuko dira, egitura autosostengatzaile planokideen gainean, eta panelen inklinazioa instalazioak errendimendu optimorako behar duen behar bestekoa izango da.	• *Los paneles irán montados sobre estructuras autoportantes coplanarias sobre las cubiertas del frontón, con una inclinación necesaria para el rendimiento óptimo de la instalación.*
3.1.3 Osintxuko frontoiko instalazioa	***3.1.3 Instalación del frontón de Osintxu***
Instalazioa Osintxuko frontoiko estalkiaren gainean jarriko da, hego-ekialdera begira. Eraikinaren katastro-datuak honako hauek dira:	*La instalación se dispondrá sobre la cubierta del frontón de Osintxu orientada hacia el sudeste. Los datos catastrales del edificio son los siguientes:*

Udalerria:	Bergara
Eremua:	513
Katastroko erref.	4878002
Kalea:	Osintxu auzoa
Ataria:	008

Municipio:	*Bergara*
Zona:	*513*
Ref. Catastral	*4878002*
Calle:	*Osintxu auzoa*
Portal:	*008*

Memoria teknikoak ekipo hauek instalatzea aurreikusten du:	*La memoria técnica prevé la instalación de los siguientes equipos:*
• 166 panel, 440 Wp-ko silizio monokristalinozkoak edo instalazioak puntako potentziara iristeko behar dituen panel-kopurua eta potentzia.	• *166 paneles de silicio monocristalino, de 440 Wp, cada uno o el número y la potencia de paneles necesarias para llegar a la potencia pico de la instalación.*
• Inbertsore trifasiko bat, 110 kW-ko potentzia nominala duena.	• *1 inversor trifásico de 66 kW de potencia nominal.*
• Sortutako eta kontsumitutako energia monitorizatzeko sistema.	• *Sistema de monitorización de energía generada y consumida.*
• Behe-tentsioko banaketa-sarera konektatzeko babesak, kableak eta lotura-instalazioak.	• *Protecciones, cableado e instalaciones de enlace para la conexión a la red de distribución de baja tensión.*
Panelak Osintxuko frontoiko estalkien gainean muntatuko dira, egitura autosostengatzaile planokideen gainean, eta panelen inklinazioa instalazioak errendimendu optimorako behar duen behar bestekoa izango da.	• *Los paneles irán montados sobre estructuras autoportantes coplanarias sobre las cubiertas del frontón de Osintxu, con una inclinación necesaria para el rendimiento óptimo de la instalación.*
3.1.4 Oxirondoko azokako instalazioa	***3.1.4 Instalación del mercado de Oxirondo***
Instalazioa Oxirondoko azokako estalkiaren gainean jarriko da, hego-mendebaldera begira. Eraikinaren katastro-datuak honako hauek dira:	*La instalación se dispondrá sobre la cubierta del mercado de Oxirondo orientada hacia el sudoeste. Los datos catastrales del edificio son los siguientes:*

Udalerria:	Bergara
Eremua:	411
Katastroko erref.	4774007
Kalea:	Oxirondo Plaza
Ataria:	002

Municipio:	*Bergara*
Zona:	*411*
Ref. Catastral	*4774007*
Calle:	*Oxirondo Plaza*
Portal:	*002*

Plegu honi erantsitako memoria teknikoan, eguzki-instalazio fotovoltaikoaren ezaugarriak honela deskribatzen dira: autokontsumo kolektibokoa, sarerako konexioarekin, inbertsoreko soberakinen konpentsaziorik gabeko 110kW-eko potentzia nominala du, eta puntako potentzia 99.880 Wp-koa da baldintza estandarretan (1000 W/m^2, 25 ºC zelularen tenperatura eta 1,5 IAM). Instalazioa azokako	*La memoria técnica adjunta a este pliego describe las características de la instalación solar fotovoltaica de tipo "autoconsumo colectivo con conexión a red" sin compensación de excedentes de 110kW de potencia nominal en inversor, siendo su potencia pico, en condiciones estándares (1000 W/m2, 25ºC temperatura de célula y 1,5 IAM) de 99.880 Wp. Se instalará sobre la cubierta del edificio del mercado, situada en el término*

eraikinaren estalkian jarriko da, Bergarako udalerrian (Gipuzkoa). Estalkiak dituen orientazioa eta inklinazioa ikusita, erabaki da moduluak estalkiaren gainean inklinazio-posizioan jartzea.	*municipal de Bergara, Gipuzkoa. Dada la orientación e inclinación de la cubierta, se ha decidido colocar los módulos en posición inclinada sobre la cubierta.*
Memoria teknikoan aurreikusi da ekipo hauek instalatzea:	*La memoria técnica prevé la instalación de los siguientes equipos:*
• 227 panel, 440 Wp-ko silizio monokristalinozkoak edo instalazioak puntako potentziara iristeko behar dituen panel-kopurua eta potentzia.	• *227 paneles de silicio monocristalino, de 440 Wp, cada uno, o el número y la potencia de paneles necesarias para llegar a la potencia pico de la instalación.*
• Inbertsore trifasiko bat, 110 kW-ko potentzia nominala duena.	• *1 inversor trifásico de 110 kW de potencia nominal.*
• Sortutako eta kontsumitutako energia monitorizatzeko sistema.	• *Sistema de monitorización de energía generada y consumida.*
• Behe-tentsioko banaketa-sarera konektatzeko babesak, kableak eta lotura-instalazioak.	• *Protecciones, cableado e instalaciones de enlace para la conexión a la red de distribución de baja tensión.*
• Panelak azokako estalkien gainean muntatuko dira, egitura autosostengatzaile planokideen gainean, eta panelen inklinazioa instalazioak errendimendu optimorako behar duen behar bestekoa izango da.	• *Los paneles irán montados sobre estructuras autoportantes coplanarias sobre las cubiertas del mercado, con una inclinación necesaria para el rendimiento óptimo de la instalación.*
3.1.5 Angiozarko frontoiaren instalazioa	***3.1.5 Instalación del frontón de Angiozar***
Instalazioa Angiozarko frontoiko estalkiaren gainean jarriko da, hego-ekialdera begira. Eraikinaren katastro-datuak honako hauek dira:	*La instalación se dispondrá sobre la cubierta del frontón de Angiozar orientada hacia el sudeste. Los datos catastrales del edificio son los siguientes:*
Udalerria: Bergara **Eremua:** 341 **Katastroko erref.** 4373020 **Kalea:** Angiozar auzoa **Ataria:** 006	***Municipio:*** *Bergara* ***Zona:*** *341* ***Ref. Catastral*** *4373020* ***Calle:*** *Angiozar auzoa* ***Portal:*** *006*
Memoria teknikoan aurreikusi da ekipo hauek instalatzea:	*La memoria técnica prevé la instalación de los siguientes equipos:*
• 140 panel, 440 Wp-ko silizio monokristalinozkoak edo instalazioak puntako potentziara	• *140 paneles de silicio monocristalino, de 440 Wp. cada uno, o el número y la potencia de paneles necesarias para*

iristeko behar dituen panel-kopurua eta potentzia.	*llegar a la potencia pico de la instalación.*
• Inbertsore trifasiko bat, 66 kW-ko potentzia nominala duena.	• *1 inversor trifásico de 66 kW de potencia nominal.*
• Sortutako eta kontsumitutako energia monitorizatzeko sistema.	• *Sistema de monitorización de energía generada y consumida.*
• Behe-tentsioko banaketa-sarera konektatzeko babesak, kableak eta lotura-instalazioak.	• *Protecciones, cableado e instalaciones de enlace para la conexión a la red de distribución de baja tensión.*
• Panelak Angiozarko frontoiko estalkien gainean muntatuko dira, egitura autosostengatzaile planokideen gainean, eta panelen inklinazioa instalazioak errendimendu optimorako behar duen behar bestekoa izango da.	• *Los paneles irán montados sobre estructuras autoportantes coplanarias sobre las cubiertas del frontón de Angiozar, con una inclinación necesaria para el rendimiento óptimo de la instalación.*
3.2 DESKRIBAPEN OROKORRA	*3.2 DESCRIPCIÓN GENERAL*
Aurreikusitako instalazio hauei esker, eguzki-panelek sortutako korronte zuzena korronte alterno bihurtu daiteke, banaketa-sarean dagoen korronte alternoaren kalitate berekoa (tentsioa, maiztasuna, etab.).	*Las instalaciones previstas permiten la transformación de la corriente continua generada por los paneles solares en corriente alterna de la misma calidad (tensión, frecuencia, etc.) que la que circula por la red de distribución.*
Instalazioan erabiliko diren materialak lehen mailako kalitatekoak izango dira, sistema fotovoltaikoen funtzionamendu egokia eta segurtasuna ziurtatuta egon daitezen.	*Los materiales utilizados en la instalación serán de primeras calidades para asegurar el correcto funcionamiento de los sistemas fotovoltaicos y la seguridad de los mismos.*
Aldatu ahal izango dira disponibilitatearen arabera edo fabrikatzailearen edo enpresa lizitatzailearen modifikazioen arabera, baina beti izan beharko dituzte proiektuan jasotako ezaugarri berekoak edo hobeak. Proposatutako konponbidea Bergarako Udaleko teknikariek baliozkotu beharko dute.	*Podrán variarse en función de su disponibilidad o modificaciones por parte del fabricante o la empresa licitadora, pero deberán ser siempre de características similares o superiores a los proyectados. La solución propuesta deberá ser validada por el personal técnico del Ayuntamiento de Bergara.*
Plegu hauetan deskribatutako ekipoetan aldaketaren bat proposatzen bada, behar bezala justifikatuko da soluzio berriak ezaugarri hobeak dakartzala. Horretarako, fitxa bat erantsiko da, behar bezala beteta, non ekipamendu alternatiboaren balio teknikoak jasoko diren; horrela, hobekuntza baloratu eta egiaztatu ahal izango da, bai eta panelen errendimenduaren bermeak ere.	*En caso de que se proponga alguna modificación de los equipos descritos en estos pliegos, se justificará debidamente la mejora en las características de la nueva solución. Para ello, se adjuntará debidamente cumplimentada una ficha donde se recojan los valores técnicos del equipo alternativo, para poder hacer una valoración y verificación de la mejora, incluyendo las garantías de rendimiento de los paneles.*

Gainera, lehen 10 urteetarako urteroko ekoizpen-ahalmenaren estimazio bat aurkeztuko da, kontuan hartuta galerak, inklinazioak eta orientazioak. Bi egiaztagiri horiek gabe, ez da soluzioa onartuko, ezta baloratuko ere. Edonola ere, Bergarako Udaleko teknikariek onartu beharko dute.	*Además, se presentará una estimación de la capacidad anual de producción para los primeros 10 años, considerando las pérdidas, inclinaciones y orientaciones. Sin estos dos justificantes, la solución no será aprobada ni valorada. En cualquier caso, quedará sometida a la aprobación el personal técnico del Ayuntamiento de Bergara.*
Panelen euskarri-egitura ez badator bat I. Eranskinean deskribatutakoarekin, aurkeztu egin beharko dira eraikin guztietarako egitura-analisiaren kalkuluak ere, EKT/CTEren «DB SE- AE: Eraikuntzako ekintzak» dokumentuaren arabera; horren bidez justifikatu beharko da, batetik, panelei eusten dien egiturak jasaten dituela jasan beharreko kargak eta, bestetik, eraikinen egiturek instalazioaren ondoriozko kargak ere jasan ditzaketela.	*Si la estructura de soporte de los paneles difiere respecto a la descrita en el Anexo I, se deberán aportar también los cálculos del análisis estructural para todos los edificios según el documento «DB SE- AE: Acciones en la edificación» del CTE, que justifiquen que la estructura que soporta los paneles admite las cargas a las que se verá sometida, y que las estructuras de los edificios pueden soportar las cargas debidas a la instalación.*
Instalazio bakoitzari dagozkion memoria teknikoetan adierazitako markak orientagarriak baino ez dira, hau da, antzeko markak edo baliokideak proposatuz gero ere onartuko dira.	*Las **marcas referenciadas en las memorias técnicas correspondientes a cada instalación serán orientativas, aceptando las propuestas de marcas similares o equivalentes**.*
4. <u>INSTALAZIOETAKO ELEMENTUEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK</u>	**4. *<u>ESPECIFICACIONES TÉCNICAS DE LOS ELEMENTOS DE LAS INSTALACIONES</u>***
Bai sistema sortzaile fotovoltaikoa, bai inbertsoreak, bai babesak, bai segurtasun-elementuak diseinatzerakoan, jarraitu beharko zaio Eraikuntzaren Kode Teknikoaren "HE - "Ahorro de Energia" izeneko Oinarrizko Dokumentuaren HE 5 sekzioan adierazitakoari.	*El sistema generador fotovoltaico, los inversores, las protecciones y los elementos de seguridad deberán diseñarse conforme a lo indicado en la Sección HE 5 del Documento Básico HE "Ahorro de Energía" del Código Técnico de la Edificación.*
Eskaintzan zehaztu egin beharko dira koadro elektrikoan instalatu beharreko elementuen markak eta modeloak. Hornitu beharreko koadro elektrikoaren diferentzial nagusia A motakoa izango da, "auto-rearmablea".	*En la oferta se especificarán las marcas y modelos de los elementos a instalar en el cuadro eléctrico. El diferencial principal de cuadro eléctrico a suministrar será auto-rearmable clase A.*
Instalaziorako aukeratutako kokapen-lekua II. Eranskinean adierazitako estalkia izango da eta, era berean, plakak ahalik eta egokien instalatuko dira produkzioaren errendimendua ahalik eta handiena izan dadin.	*El espacio seleccionado para colocar la instalación ocupará la cubierta que se refleja en el Anexo II instalando las placas de la manera más óptima para que tengan el mayor rendimiento en la producción.*
Euskarri-egitura fabrikatuta egon beharko da ingurumen-eragileen ekintzaren aurkako babesa bermatuko duten materialez, betiere	*La estructura soporte deberá estar fabricada con materiales que garanticen la protección contra la acción de los agentes ambientales, teniendo en*

kontuan hartuta zein tokitan kokatu behar diren, eta era berean ondo kalkulatuko da behar bezain segurua eta solidoa izan dadin; izan ere, instalatutako sorgailu fotovoltaikoarekin, jasan egin beharko ditu faktore klimatologiko kaltegarrien ondoriozko gainkargak, batez ere haizea.	*cuenta la zona en la que se van a ubicar, y se calculará para que sea lo suficientemente segura y sólida, debiendo resistir, con el generador fotovoltaico instalado, las sobrecargas debidas a factores climatológicos adversos, principalmente el viento.*
Instalazioko elementuek izan behar dituzten gutxieneko ezaugarriak I. eranskinean daude jasota. Kanpoan dauden materialak babestu egin beharko dira ingurumen-agenteen aurka, bereziki eguzki-erradiazioaren eta hezetasunaren eraginaren aurka.	*Las características mínimas que deben tener los elementos de la instalación serán las recogidas en el Anexo I. Los materiales situados en intemperie se protegerán contra los agentes ambientales, en particular contra el efecto de la radiación solar y la humedad.*
Instalazioaren kableatua kobre malguzkoa izango da. Erabilitako kableek bete egin beharko dute isolamenduari eta babes-mailari buruz indarrean dagoen araudia. Bereziki, 1.000 V baino gehiagoko isolamendua izango dute, isolamendu bikoitza izango dute (II. mota) eta halogenorik gabe egongo dira.	*El cableado de la instalación será de cobre flexible. Los cables utilizados cumplirán la normativa vigente en cuanto a aislamiento y grado de protección. En particular poseerán un aislamiento mayor de 1000V, tendrán doble aislamiento (clase II) y estarán libres de halógenos.*
Segurtasun-arrazoiengatik eta sorgailuaren mantentze-lana eta konponketa errazte aldera, deskonektatzeko behar diren elementuak (fusibleak, etengailuak, etab.) era independentean instalatuko dira, adar bakoitzaren eta gainontzeko sorgailuaren bi terminaletan.	*Por motivos de seguridad y para facilitar el mantenimiento y reparación del generador, se instalarán los elementos necesarios (fusibles, interruptores, etc.) para la desconexión, de forma independiente y en ambos terminales, de cada una de las ramas y el resto del generador.*
Ekipamendu eta aparatu bakoitzean identifikazio-etiketak jarri beharko dira, mantentze-lanak errazteko.	*Se deberán colocar etiquetas identificativas en cada uno de los equipos y aparatos para facilitar su mantenimiento.*
Instalazioak ahalik eta errendimendu handiena lortzeko proiektatuko dira. Moduluen antolaera egiterakoan, zaindu egingo da sistemaren orientazioa eta inklinazioa eta haren gaineko itzalak, horien ondoriozko galerak ahalik eta txikienak izan daitezen.	*Las instalaciones se proyectarán para conseguir el máximo rendimiento posible. La disposición de los módulos se hará de tal manera que las pérdidas debidas a la orientación e inclinación del sistema y a las sombras sobre el mismo sean las mínimas posibles.*
Instalazioek autokontsumo-erregimen partekatuan funtzionatu beharko dutenez, Iberdrolaren alokairu-kontagailurako kutxa bat hornitu beharko da, baita beharrezko gainontzeko elementuak ere, fusible-kaxa, fusibleak, kableatuak, enbarratuak, etab.	*Debido a que las instalaciones deberán funcionar en régimen de autoconsumo compartido, deberá suministrarse una caja para el contador de alquiler de Iberdrola, así como el resto de elementos necesarios, caja de fusibles, fusibles, cableados, embarrados, etc.*
Barruko konexioa Iberdrolak zehaztutako konexio-puntuan egingo da.	*La conexión interior se llevará a cabo en el punto de conexión especificado por Iberdrola.*
